

16. Zkia

2007ko martxoa

## HH eta LMH GABON KANTETAN

### *Alumnos/as de E. Infantil y Primaria cantan villancicos*

Beste urte batzuetan legez, Canal Bizkaiak antolatzen eban «Gabon kantak» lehiaketan parte hartu genduan. Talde bi joan gitan, bakoitza 30 ikasle ingurukoa.

Bata Haur Hezkuntzakoa zan, Liberen agindupean; bestea, Lehen Hezkuntzakoa, Dikantxiren agindupean.

Como en ediciones anteriores, a finales de año, participamos en el concurso de "Gabon Kantak" organizado por Canal Bizkaia. Fuimos dos grupos de unos 30 alumnos.

Un grupo, dirigido por Libe, fue de Educación Infantil; el otro grupo era de Educación Primaria, y fue dirigido por Dikantxi.



Telebistan ikusteko aukera izan genduan. Bikain, gero! Baina benetan zoriondu, euren jarreragaitik zorionduko doguz. Eroapen handiz eroan eben aurrera ekitaldia eta!

Hay que felicitarles por lo bien que lo hicieron, lo cual apreciamos a la hora de verlo en la televisión, y sobre todo por lo bien que se portaron, aún habiendo que esperar entre las actuaciones.

## SUMARIO

- HH eta LMH GABON KANTETAN  
*Alumnos/as de E. Infantil y Primaria cantan villancicos*
- 5 URTEKO IKASLEEN AGURRA  
*Despedida de los alumnos/as de 5 años*
- DBH-KO IKASLEAK SUKALDARI ESKOLAN  
*Visita de los alumnos/as de la ESO a la escuela de Hostelería*
- KOORDINATZAILEEN BATZARRA  
*Reunión de Coordinadores*
- DBH 2. MAILA ARRIAGAREN ERAKUSKETAN  
*2.º de ESO en la exposición de Arriaga*
- TXISMEAK
- SARIAK  
*Premios*
- TXOKO BERDEA: HONDAKINAK BEREIZTEN  
*Diferenciamos los residuos*
- ZUHAITZ EGUNA  
*El día del árbol*
- LMH 3 ASTEASUN  
*3.º de Primaria en Asteasu*
- EUROCAMP 06



## 5 URTEKO IKASLEEN AGURRA

### *Despedida de los alumnos/as de 5 años*

Heldu zan ekaina be, eta zelan ez, urteroko moduan 5 urtekoen agurra izan genduan. Agurtuko genduzan andereñoak honeexek dira: Gurutze, Marta, Mireya eta Ana.

Andereño Libek dana eban prest, beraz, barikuan, ekainak 23, azken egun hau ospatzeko asmoz polikiroldegira joan eta: Hau jendetza!

Giroak lagunduta, bertan egozan ikasle guztiak, poz-pozik, andereñoei opariak emoteko gogoz. Andereñoen poza be ukazina izan zan, ez ebenean negar egin!

La profesora Libe preparó todo y el viernes 23 de junio, fuimos al polideportivo con intención de celebrar el último día de curso y ¡qué cantidad de gente!

El ambiente acompañaba a nuestros alumnos, deseosos de entregar su regalo a la profesora. La alegría de ellos ¡rozó el llanto!

Llegó junio, y como todos los años hemos celebrado la despedida de los alumnos/as de 5 años. Las profesoras que despedimos son Gurutze, Marta, Mireya y Ana.

## DBH-KO IKASLEAK SUKALDARI ESKOLAN

### *Visita a la escuela de Hostelería*

Aurten, Comenius 1.1 europar proiektuan, zenbait europar herrialderekin batera, hau da, Holanda, Portugal, Frantzia, Turkiarekin batera, ekintza bat burutu da.

Luzaroan, "Janaria, turismoa eta bizimoduak" gaia gelan landu ostean, ikasleek EHUko Ostalaritza Estola bisitatu dabe azaroan.

Hango instalazioak ikusi eta gero, produktoren bat dastatzeko aukera ere izan dabe. Hori bai, ikusi dabe sukaldarien eta zerbitzarien lana zein dan be.



Dentro del Proyecto Europeo Comenius 1.1, este año se ha realizado una actividad para llevar adelante este proyecto que cuenta con la colaboración de distintos países europeos: Holanda, Portugal, Francia, Turquía.

Tras varios meses de trabajo en el aula sobre el tema «Comida, turismo y estilos de vida», los alumnos han visitado la Escuela de Hostelería de la UPV en noviembre.

Allí tras una visita a las instalaciones han tenido oportunidad de degustar algún producto y ver en directo la vida de los cocineros, camareros, pinches...



## DBH 2. MAILA ARRIAGAREN ERAKUSKETAN

### *2.º de ESO en la exposición de Arriaga*

Dakizuenez, aurten, Bilbon Juan Crisóstomo de Arriaga konposagilearen jaiotzaren bigarren urteurrena ospatu egin da. Hori dala eta, bere omenez, Bilboko Udalak erakusketa bat antolatu dau.

Ikastolako DBH 2. mailako ikasleak Arriagaren barri gehiago jakiteko joan dira. Han, gida batek konposagileari buruzko datuak eta bitxikeriak kontatu deutsez. Honi buruz ez ezik, Bilboko XIX. mendeko ezaugarri nagusienei buruz ere berba egin deutse: zenbat biztanle, bizimodua, ohiturak, kale izenen jatorria...

Aukera paregabea izan da Bilbotar konposagilerik ospetsuena ezagutzeko eta geure uriaren historia hobeto ulertzeko.



Como sabéis, este año se ha celebrado en Bilbao el segundo centenario del nacimiento del compositor Juan Crisóstomo de Arriaga. Con este motivo, el Ayuntamiento de Bilbao ha organizado una exposición.

Los alumnos/as de 2.º de Eso se han acercado para conocer más sobre el compositor. En la visita guiada se les ha explicado la vida, obras y curiosidades de Arriaga. Además, se les ha detallado la historia del Bilbao del siglo XIX, en la que vivió el compositor: número de habitantes, modo de vida, costumbres, origen del nombre de las calles...

Ha sido una oportunidad inmejorable para conocer al compositor bilbaíno más famoso y el entorno en el que vivió.



## KOORDINATZAILEEN BATZARRA

### *Reunión de Coordinadores*

Azaroan Comenius proiektuko koordinatzaile batzarra izan zan Turkian, hilaren 5etik 9ra.

Bertan, Ikastolako zuzendari, irakasle bi eta Gotzaitagiko ordezkarienez gain, hainbat herrialdetako ikastetxeetako ordezkariak parte hartu eben, hain zuzen be, Turkiakoak, Frantziakoak eta Holandakoak.

Ikasturte hau, proiektuko bigarren urtea dala kontuan hartuta, bileretan orain arte egindako lana ebaluatu eta ikasturte honetan egin beharreko lana erabaki zan.

Lan egiteaz gain, beste ikastetxe batzuk bisitatzeko eta Ankarako leku esanguratsuenak ezagutzeko aukera ere egon zan.



En noviembre se celebró la reunión anual de coordinadores de Comenius en Turquía, del 5 al 9 del citado mes.

En ella, además del director, dos profesores de la Ikastola y un representante del Obispado, participaron los demás centros que integran el proyecto: Turquía, Francia y Holanda.

Teniendo en cuenta que este curso es el segundo año de dicho proyecto, en las reuniones se evaluó el trabajo realizado hasta el momento y se decidió el trabajo para el resto del curso.

Además de trabajar, también hubo ocasión de visitar diversos centros escolares y conocer los lugares más característicos de Ankara.



### TXISMEAK

Y Joserra Benitezek, DBHko irakasleak, bigarren semea izan dau. Bere izena: Iker. Zorionak!



Y Joserra Benítez, profesor de la ESO, ha tenido su segundo hijo, al que han puesto de nombre Iker. ¡Felicidades!

### SARIAK

#### Premios

Lehen Hezkuntzako 40 bat ikaslek Errekaldeko Lagun Artean taldeak antolatutako Ipuin Lehiaketan parte hartu dabe. Ikasleen lan guztiak maila eta adinaren arabera saritu dira. Urtarrilaren 3an, batu diran guztiak, askari eder bat egin eta gozatzeko aukera izan dabe.

HH ikasleek "MUNDUA ZABORREZ BETETA" lelopean antolatutako marrazki lehiaketan parte hartu dabe. Maiatzean klasean zaborraren gaia jorratu ostean irudiok egin eta ekainaren 9an, Zuhaitz Egunean banatu doguz sariak.

Irabazleak honako honeek izan dira:

Urte 2ko gelan: Patricia Guillén

3 urteko geletan: Candela Lucía García

4 urteko geletan: Unai Pérez

5 urteko geletan: Iren Aizpuru

Benetan, ARTISTA BIKAINAK doguz, gero!



Unos 40 alumnos de primaria participaron en el concurso de cuentos organizado por Errekaldeko Lagun Artean. Todos los trabajos fueron premiados, cada uno de acuerdo a su nivel y edad. Todos los que se reunieron el pasado 3 de enero tuvieron la posibilidad de disfrutar de una rica merienda.

Alumnos de E.I. han participado en el concurso de dibujo bajo el lema «EL MUNDO REPLETO DE BASURA». Durante el, mes de mayo se trabajó el tema de las basuras y el día 9 de junio, aprovechando el día del árbol, se repartieron los premios.

Los premiados fueron:

Aula de 2 años: Patricia Guillén

Aula de 3 años: Candela Lucía García

Aula de 4 años: Unai Pérez

Aula de 5 años: Iren Aizpuru

¡Qué grandes artistas tenemos!

### TXOKO BERDEA: HONDAKINAK BEREIZTEN

#### Diferenciamos los residuos

Aupa lagunok:

Ingurugiro proiektuak, iaz, hondakinen gaia landu eban. Horretarako Ikastolako hondakinen egoera aztertu ondoren, ekintza batzuk burutu genduzan. Ekintza honeen artean ipuin eta marrazki lehiaketa bat antolatu genduan, garbigunea be sortu gendularik. Garbigune honetara, barikuro botatzen genduzan ikasgelako hondakinak, hondakin bakoitza nora bota behar dan ikasi gendularik.

Hau lan guztiau egin ondoren udaletxera joan ginan, Ikastolan egindako lana azaltzera. Bertan, beste ikastola batzuk egindako lana be erakutsi jakun.

Badakigu izadiaren alde lan egitea gauza ederra dana. Gainera beste hainbat Ikastolatan honen alde lan egiten dala jakiteak, asko poztu ginduzan.



¡Hola amigos!

El año pasado, dentro de los proyectos de medio ambiente, trabajamos el tema de los residuos. Tras analizar la situación de la Ikastola, realizamos diferentes actividades, entre ellas un concurso de cuentos, otro de dibujos, también organizamos un garbigune. Todos los viernes llevábamos los residuos de cada aula a dicho Garbigune, aprendiendo dónde debíamos depositar cada uno.

Tras este trabajo, fuimos al Ayuntamiento a explicar todo el trabajo realizado en la Ikastola. Allí, también conocimos el trabajo que llevaban a cabo otros centros.

Sabemos que trabajar a favor del medio ambiente es bonito, y saber que en otros centros realizan el mismo trabajo, nos produce una doble alegría.

### ZUHAITZ EGUNA

#### El día del árbol

Ekainaren 9an, ikastolan (HH eta LMHko ikasleok) Zuhaitz Eguna ospatu dogu. Agenda 21eko arduradunek dana dabe antolatuta zuhaitz landarak sartzeko.

Irakasleak euren ikasleak hartu eta LMHko jolastokira joan dira, gelaka zuhaitz landarak sartzeko prest eta gogotsu.

Bero handia egin dau baina hori ez da oztopo izan lana behar dan moduan egiteko, jolasketarako bidea eginda egoan baina bidetxo hori txukundu eta itxuraldatuta agertu da jarri doguzan landarakaz. Ez dogu aitzakiarik bertatik ez joateko!



El día 9 de Junio los alumnos de E.I y E.P. celebramos el día del árbol. Los responsables del proyecto Agenda 21 lo tenían todo preparado para plantar los árboles.

Los profesores llevaron a sus alumnos/as al patio de E.P. con intención de plantar los árboles.

A pesar del calor, no hubo ningún problema para realizar el trabajo. Acondicionamos y adecentamos el caminito de acceso al patio. ¡No hay ninguna pega para poder acceder por el camino!



## LMH 3 ASTEASUN

### 3.º de Primaria en Asteasu

*Maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean eta 2an, 3.mailako ikasle talde batek Asteasun emon ebazan egun batzuk, bertan alkaraldaketa amaitutzat emon gendularik. Gure ikasleek herri txiki bateko eguneroko baserri bizitza ikusi eta benetan egunak aurrera egin ahala gertatzen ziranak ikusi eta bizi izan ebezan.*

*Lehenengo egunean, Pagoetako Parke Naturalera joan ginan, bertan oreinak, erleak eta honeek sortzen dabazan produktuak dastatzeko aukera zoragarria izan genduan. Eguraldiak lagundurik, horrelakoa eskatu genduan eta, gure egonaldia, sekulakoa...izan zan.*

Los días 31 de mayo y 1 y 2 de junio, un grupo de 3.º de primaria tuvimos la posibilidad de pasar tres días en Asteasu. Así terminamos nuestro intercambio. Nuestros alumnos tuvieron la posibilidad de conocer la forma de vida rural, y según pasaban los días, pudieron disfrutar de las novedades.

El primer día visitamos el Parque Natural de Pagoeta donde vimos ciervos y abejas en el panal y tuvimos la oportunidad de degustar sus productos. Encargamos un buen tiempo con lo que aprovechamos bien la estancia.



*Bigarren egunean, Donostiako Akuariuma bisitatu eta gero, Santa Klara Irlatik buelta-txo bat egin genduan. Irlan, ura bero egon ez arren, urteko lehen bainua hartu eben gure ikasleek.*

*Azkenengo egunean Bulano baserria ikusi genduan. Bertan, uritarrarontzat guztiz ezezaguna dan lanbidea, abeltzaintza, zelangoa dan eta zertan datzan ikusi genduan.*

*Oraindik bageunkan zer egin, eskolako lagunak agurtu eta Bilbora itzuli. Aipagarriena Asteasun itzi doguzan lagunak, benetako lagunak!*



El segundo día después de visitar el Acuario de Donostia, fuimos en barca a la isla de Santa Clara. Nuestros alumnos tuvieron la posibilidad de darse el primer baño de la temporada aunque la temperatura del agua no fuese muy templada.

El último día visitamos el caserío Bulano y conocieron de cerca la vida del ganadero, un oficio muy desconocido para ellos.

Después de despedirnos en la escuela, volvimos a Bilbao dejando allí buenos amigos.



## EUROCAMP 06

*Urtero lez, aurten ere Europako hainbat ikastetxetako ikasleen arteko topaketa izanda, maiatzaren 29tik ekainaren 4ra bitartean. Hori dala eta, DBH 2. mailako hamazortzi ikasle eta irakasle bi Eslobenian alkartu ziran Austria, Hungaria eta Eslobeniako beste hainbat ikasle eta irakaslegaz.*

*Bertako lekurik esanguratsuenak bisitatu (Ljubljana, Postojnako kobak, Alpeak, lakuak...) eta hainbat ekintza burutu ebezan. Are gehiago, etxerako bueltan, Venezian eguna pasatzeko ere aprobe txatu eben.*

*Ingelesa praktikatzear gain, beste herrialdeetako kulturak eta lagunak ezagutzeko aukera paregabea izan eben ikasleek topaketa honetan.*



Como es habitual, este año también se ha celebrado un encuentro multilateral entre los centros participantes en los proyectos europeos. Por este motivo, dieciocho alumnos/as de 2.º de ESO y dos profesores se reunieron en Eslovenia del 29 de mayo al 4 de junio, con otros alumnos/as y profesores de Austria, Hungría y Eslovenia.

Además de visitar los lugares más emblemáticos del país (Ljubljana, las cuevas de Postojna, los Alpes, los lagos...) y realizar diversas actividades, también aprovecharon la vuelta para pasar un día en Venecia.

Este encuentro ha sido sin duda, una oportunidad inmejorable para conocer amigos y culturas de otros países.

